



**b**

**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

560. zkia.

XIII. urtea

2006ko otsailaren 17a

Ander eta Gillermo

# Down sindromearekin bizitzan aurrera

Elgoibarko Izarrak eta Udalak martxan jarri nahi duten  
KUADRILLATEGI proiektuam lan egiteko

## 2 DINAMIZATZAILE behar dira

Proiektuaren helburua: 12-14 urteko Elgoibarko gazte-kuadriletan euskara bultzatzea.

Dinamizatzaileen dedikazioa: Astean 5 ordukoa.

Eskatzen da:

- 18 urte beteta izatea
- Elgoibartarra izatea
- Hezkuntza adarretako ikaslea izatea baloratuko da.

Informazio gehiago eta curriculumak bidaltzeko:

Elgoibarko Izarra, Ubitarte 4 behea. Tel.: 943-74 16 26 (Nerea) [nerealarra@elgoibarkoizarra.com](mailto:nerealarra@elgoibarkoizarra.com)

Azken eguna: marixoa 1



ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUL ELXALTEA



Elgoibarko  
Udala

# rtniSIDE



Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete aino lehen esku a dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



## ORDUTEGIA

1 0:00etatik-12:30era

1 5:00etatik-20:30era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua.**

Tel. 943 742 720  
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**

(San Andres pasealekutik)  
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



IBAN URIZAR

Mikelele!!

Notizi txar bat jaso nuen duela aste batzuk, orain dela gutxi gauzatutako notizia. Metak disketxeak ateak itxi ditu. Badakizu disketxe batek beste enpresa askok bezala bere produktua merkaturatzeko lan makala egin behar duela. Musika zabaldu eta saldu, edo saldu eta ondorioz zabaldu.

Mp3a, KDa, K7a, LPa,... musikaren euskarri desberdinak. Musikarien klonazioa lortu ezean musikaren klonazioa lortu eta bide batez industria handitu.

200 urte atzerago editoreek negozioa egiten zuten memoria musikalaren ordezkorekin, hots, pentagrama.

Partitura dexente saltzen zen, eta gaur egun bezala artista ezagun eta "komertzialak" zeuden topean: Strauss, Rossini, Mozart,... puntako artistak partituratzen ziren moldaketa bereziak eginez.

Orduan ere parixea modan zegoen, piratek negozioa egiten zuten eta hain ezagunak ez ziren artista batzuk bere kabuz argitaratzea lortzen zuten, partxearekin edo gabe, kopiak eskuz eginez edo inprenta ttipi bat erabiliz.

P.D: Euskarri fisikotik birtualera. Euskadi fisikotik birtualera, ere. Baina musika, musika beti Mikele.

## ZOZOAK BELEARI...



MIKEL KORNEJO

Ibanenene eneeell

KDek musikaren bapateko garestitzea suposatu zuten, hala ere badirudi bere erosotasunak eta halako betikotasun mitoak beste forrnatoak garaitzera eraman zutela.

Eta "Top-manta" delakoa bere urrezko garaia ezagutzen ari zelarik (ez dut imajinatu nahi zer gertatuko ote den gure pirata atzerritarrekin...), disketxe eta musikarien etsai berriak: Internet-a eta Mp3a. Eta, era berean, publizitate kanpaina egokien bidez jakinarazi digutenez ("ila Ley acWa!") biztaniegoaren kopuru handi bat, gu geul, gaur egungo pirata bihurtu gara, hau zirrara!

Piraten aurka dauden artistek eta disketxeek euren bizibidea deusezten ari dela diote, eta musika nori helarazi nahi dioten hausnartu beharko lukete, musikazaleei edo euren musika eros dezaketenei besterik ez.

Beharbada disketxeak interneteko musika erakustoki bilakatzeko ordua iritsi da, eta musikariak sortzaile, ez saltzaile.

Musika une honetan inoiz baino herrikoia da, musikazale askorentzat benetako urrezko aroa. Aurrera piratok!

P.D.: Doluminak, Ibane, zerbaite-tarako behar banauzu hor naukazu, badaKZ, are gahiago berria halako berria izanda...

«Musikarien  
klonazioa lortu  
ezean musikaren  
klonazioa lortu»

IBAN

«Musika une  
honetan inoiz  
baino  
herrikoia da»

MIKEL



Eoziovr̄u cu-rxr Ent MomErrEnt D/Z..Lif\ft^P-EIV "1--DE,

EILAK DEIENtGAirvt'cruKC) zikr'ruCtv GuTKiEtv



Bernard Baruch

## Olaizaga Kiroldegia

Marije Sanchezek, joan den asteko idatzian, bere iritzia eman zuen Olaizaga Kiroldegiarekin zerikusia duten hainbat gairen inguruan. Hori dela eta, lerro hauek baliatu nahi nuke, hainbat ari argitu, eta bide batez, iritzi horiei aurre egiteko.

- Olaizaga Kiroldegian, erabiltzaileek badituzte zenbait baliabide beraien kexak, proposamenak, kritikak eta iradokizunak aurkezteko. Horiek laguntza handikoak dira gure zerbitzua hobetu ahal izateko. Eta benetan diot: erabiltzaileei, monitoreei, harrerako langileei eta gainonlizekoei esker, ahal den ondoen erabiltzen dira baliabide horiek.

Jakin badakigu Olaizaga kiroldegia txiki gelditu dela. Baina, aldi berean, hori harro egoteko arrazoiak da guretzat. Izan ere, duela hamar urte, Kiroldegiaren gestioa gure gain geratu zenean, bi ziren gure ametsik txarrenak bata, instalazioak hutsik egotea, eta bestea, abonatu kopurua biztanleriaren %5 baino gubdago izatea. Baina zorionez, gaur egun, 4.000 abonatu inguru gara, eta gutxi gorabehera, 1.000 lagun dira, hilerio, ikastaroetan aritzen direnak. Helburu honen lorpenean zeregin garrantzitsua izan dute gure langileak (monitoreak, administraria, garbitzaileak, hanerako, mantenimenduko, tabemako... langileak). Oker zaude, langileak gutxitu egin direla diozunean.

- Igerilekuetako eta saunetako aldage-lak egunean birritan garbitzen dira, hau da, 06:00etan eta 14:00etan.

- Argindarraren ordainagiriari dagokionean, zera adierazi nahi nizuke: ez dugula baliabide bat ere behar baino gu-

txiago erabiltzen. Eta horren froga gisa, 2005 urteko argindarraren faktura 2004koa baino %19 handiagoa izan zela argitu nahi nizuke, batik bat, instalazioak gehiago erabili direlako.

Gabonetako oporretan, instalazioak abenduaren 24an, 25ean eta 31n, eta urtandilaren lehen eta 6an egon dira ibidta. Aste Santuan, aldiz, ostegunean, ostiralean eta pasko astelehenean ixten dira instalazio horiek

- Udal Kirol Patronatuaren prezioak Gipuzkoako merkeenak dira, eta horretaz gain, zerbitzu gehien (igerileku estaliak, aire librekoak, muskulazio gelak, saunak, rokodromoak, squash-a, ed.,) eskaintzen dutenak Elgoibarko abonatu bakoitzak ordaintzen dituen hileko 75 euroak (zazpi euro eta erdi) oso merkeak dira, zumaiarrek, hilerio, ordaintzen dituzten 15 euroekin edo hondarribiarrek ordaintzen dituzten 20ekin konparatzen baldin baditugu. Zein zerbitzu berri eskaini dizugu 2005 urtean? Mintxetan, igerilekuetako aldagela berriak, eta Kiroldegian berriz, dutxetako ur beroa metatzeko sistema berri bat Horretaz gain, igerileku rxikiko uraren temperatura beroagoa eta ikastaro berriak ere eskaini ditugu: Pilates eta Sabel-dantza.

- Aipatzen dituzun sinadurak, 2005eko apirilaren 12an ekarri zenituzten. Sinadura haiek honako hau zeukaten goiburua gisa: "igerilekuko erabiltzaileak eta ikastaroak gehitu egin direla ikusirik, ordutegia handitzeko proposamena egiten da". Proposamen hark zehaztapen handiagoa behar zuela iruditu zitzaigunez, orlur horiek noiz (goizeko lehenengo orduan, eguerdian, ala eguneko azken orduan) gehitu behar

ziren adieraz zeniezagutela eskatu genizuen, guk balorazioa egin genezan. Oraindik ere, erantzunaren zain gaude.

RAMON MUGICA ARCARAZO  
UDAL KIROL PATRONAILIKO ZUZENDARIA

## 2006ko Juan Muguerza Krosaren esker ona

Idatzi honen bidez, Elgoibarko Nazioarteko Juan Muguerza Krosaren LXIII edizioa antolatu duen batzordeak, eskerrak eman nahi dizkie, nola edo hala, euren laguntza eskaini duten erakunde eta enpresa guztiei. Izan ere, haien eskuzabaltasunari esker, berebiziko arrakasta izan zuen 2006ko urtarilaren 22an egin zen krosak.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu Elgoibarko herriari; alde batetik, ekitaldi hori antolatzerako orduan emandako laguntzagatik eta besteik, gure henira krosaren parte hartzeko asmotan etorri ziren atleta guztiei egindako harrera bero eta adeitsuagatik Horregatik guztiagatik, Elgoibarko heniaren izena, aste betez mundu osoko kirolaren ikuspuntuan egon da, hedabideak Elgoibarren zer gertatzen ari zen adi egon baitira. Krosa heniarena da, eta herriak maitatzen lan-aituko duela espero dugu. Edizio honetan ere Gipuzkoako krosik onena izan gara; eta antolaketa-ri eta kirol arloari dagokionean, estatuko hoberenatarikoa. Hortaz, lanean jarmituko dugu, datorren urtea ere, aurtengoa bezain ona edo hobea izan dadin. Horrela bada, Mintxetan ikusiko dugu elkar, 2007ko urtanilean. Mila esker.

mirocErAA.T.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zkia.

LAGUNTZA LER KCIAROL4TV..14< C P31.12 TATER 1., MI.MTATJA IEN

[blarren] ESARA. INFEMAIIG'A TRADA .1 40a GCRIRGUA SS ISSN

&DANOBAT Z-GOITI I MESTARTA KONDIA

NallIrroa snpo:zntzu, 2 • 20870 ELGOIBAR  
2: 943 74 41 12 • Fcm.a:ei 943 74 37 04  
Publizfiatea. fa 943 74 37 04  
lxzen elgotarkoizaraccm

Elgoibarko Udala Eu.51c Jaurinum4o Fyzy Alciunúvk ciqz fogund.;c119 \_ cr,C



## ? GALDERA

• Noizko bukatuko dute Santa Ana kaleko errotondatik San Rokerako oasabidea? Herritar batek esan digunez, azkenaldian obra hori geldirik egon omen da eta atzerapen handiarekin omen dabilta. Udaleko Hirigintza sailera jo dugu, eta esan digutenez, "inguru horretan trenbidea pasatzen da, eta Eusko Trenekin zenbait arazo izan dira. Dagoeneko zeuden arazo horiek gainditu dira, tunela bukatuta dago eta San Rokerako pasabidea egitea izango da egingo den hurrengo lana". Bestalde, Hirigintza sailetik ez digute esan obrak zein epetan bukatuko dituzten.

## 🗨️ KEXAK

• Ubitarte ingurunea txakur kakaz beteta dago: "Lotsagarria da. Goizero-goizero jendeak txakurrak kalera ateratzen ditu euren beharrak egitera, baina gero ez dute kaka jasotzen. Gaue-tan gauza bera gertatzen da, eta askotan txakurrak euren artean borrokan hasten dira eta sekulako zarata ateratzen dute. Ez dut esan nahi txakurrik ez edukitzeko, baina txakur jabeak kontu handiagoarekin ibili beharko lirateke, edo bestela, kalegarbitzaileek hartu beharko lukete Ubitarte inguruko kaleetan txakur kakak garbitzearen ardura".

• Zergatik BARRENezko eskertzak ordaindu egin behar dira eta agurrak doan dira? "Urtean behin gure koadrilako lagun baten urteurreneko meza jarri nahi izaten dugu BARRENez eta 60 euro ordaindu behar dira. Agurren atala, ordea, astero-astero bete-ta joaten da eta doan da. Ez dugu ulertzen".



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
 Nafarroa enparantza, 2  
 20870 ELGOIBAR  
 'a 943 74 41 12

## komikia

Hil dnjtr... V. 2.0



Ko,4ot 047

# 1956-2006

## Gau-eskolatik euskaltegiara 50 urtean

### Ahalegin berriak gau-eskola zabaltzeko

Aurreko astean esan genizuen 1958an gau-eskolako ateak itxi egin zirela ikasle gutxi zegoelako. Baina bi urte inguruko etenaren ondoren, 1960an berriz ere hasi ziren elgoibartarrak helduen euskalduntze-alfabetatzeari tiraka.

Deun Oliden zumaiarra irakasle lanetan hartuta, euskara ikasten hasi zen koadrilabro bat. Kasu honetan ere, eskolak astean pare bat aldiz izaten zituzten, iluntzetan, lanetik irten ondoren. Eskolak Elizako lokaletan ematen ziren, *Accion Catolicako* lokaletan, hain zuzen ere.

Baina bigarren ahalegin honek ere ez zuen luze iraun. Guardia Zibilak Deun Oliden atxilotu eta kartzelaratu egin zuen, eta, ondorioz, euskarako eskolak bertan behera geratu ziren.

#### 1964: Hirugarrenean bai

Aurreko bi ahaleginetan neurri batean kale egin arren, orduko euskaltzaleek ez zuten etsi eta hirugarren ahaleginari ekin zioten. 1964. urtearen bueltan, Felix Etxeberria 15-20 urte bitarteko gazteekin hasi zen elkartzen elizako lokaletan. Bi ziren Felixen helburuak: bat, gaztetxoaren artean euskaraz hitz egiteko ohitura piztea (gogoratu garai hartan debekatuta zegoela eskolan euskaraz berba egitea), eta, bigarrena, euskaraz irakurtzen eta idazten ikastea. Halere, Felixek aitortu digunez, "eskolak bairio gehixao, bilterak izaten zian". *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* aldizkariak hartzen zituzten, eta artikulu onentsuenak aukeratu ondoren, hauen gaineko komentarioak egiten larduten zuten. Komentarioak ahoz eta idatziz egiten zituzten, eta idatziz egiten zituzten iritzi artikuluak aldizkarietara bidaltzen zituzten argitara zitzaten.

Beraz, hirugarren ahalegina balekoa izan zen, eta 1966an Elgoibarko izarrak hartu zuen gau-eskolaren ardura. Baina hau datorren astean kontatuko dizuegu.



**MIREN VALLEJO**

GAU ESKOLAKO IKASLEA  
1956AN

*Gau Eskolan ikasle moduan hasi zen Miren Vallejo 1956an, eta beste hiru ikaslerekin batera, (Lurdes Albercli, Felix Etxeberria eta Jesus Larrafiaga) euskara irakasten hasi zen 58an. Mirenek euskaraz hitz egiten bazekien, baina idazten ere ikasi nahi izan zuen.*

#### • Euskaraz idazten ikastea zen zure nahia, ezta?

Bai, nik euskaraz hitz egiten banekien, gure etxean dena euskaraz egiten genuen, baina idazten ez nekien. Alfonso Guilla izon zen nire irakaslea. Handik aurrera, eguneroko idazten dut zerbait euskaraz, izugarri gustatzen zait. Euskara entzutea eta ondo ahoskatzea ere gustuko ditut. Mezak beti euskaraz entzuten ditut eta apaizak sermoia botatzen duenean "tz", "ts" eta "tx" noiz erabiltzen dituen fijatzen naiz

#### • Gau eskolan irakasle moduan ere ibili zinen...

Ahal genuen moduan erakusten genien euskara umeei. 7 udeko umeein ibilizen ginen eta jolasen bitartez erakusten genien euskara. Nire iloba etortzen zen klaseak hartzera eta hark "tiall deitzen zi-

danez, beste ume mordo batek ere "tiall esaten zidan. loba mordo bat izan nituen garai hartan.

#### • Zer da euskara zuretzat?

Barruan sentitzen dudana gauza bat da, azaldu ezin daitekeen sentimendu gogorra, polita, goxoa eta biraonk gabea. Biraonk beti erderaz botatzen dira, euskaraz ez dauka horrelakorik Euskal Herrian bizitzeko beharrezkoa da. Jende asko bizi da euskararik gabe, baina Euskadi bada, euskara jakin egin behar da. Katalunian denek ikasten dute kataluniera, hemen tontoagoak gara.

#### • Nolako etorkizuna du euskarak?

Ona. Gazte askok hitz egiten du euskaraz Kanean euskara entzuten dudanean asko pozten naiz. Euskarak indarra harfuko du.

# 545<sup>11,4</sup>

## ileapaindegia

### Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49•1 Tel: 943 74 11 89

## Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 -72 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

## AKORDATZEN NAIZI



**FELISA BERGARETXE**

1915an joia

### **dbarretxe, Franco eta euskeria»**

girre ezagutu naban, oso onan. Gero Ardanza, haura ere so gizon ona. Eta hau ere ona. Onegixak hirurak Pixka bat maltzurragua izan bihar da. Lan haundixa egin dogu euskaldunak, eta gero kanpokuak eruan dabe dana. Onegixak izan gerralako pasau jakuz gauza asko. Garai haretan pare bat granuja egon izan balira bakoitzari tokaizen zitzakona emateko, hobe.

Frantsesak ere hiru probintzia icipurtu ziguen, eta hemenguak beste bat, lau gitxiagorekin geratu giñan. Zazpi euki bihar genduzen, eta guk geuk agindu. Hain nobliak, azkenian tontuak Franco hil zanian poztu egin nitzan: miñ haundixa egin zian Euskal Herrixari.

Guk euskeraz egitten gendun dana, Eskolan ez, baiña eixian eta kalian

dana euskeraz. Ez naue euskeraz hitz egittiagaittik zigortu. Hala ere, Bilbon aitta eta bixok trenian guazela, gu euskeraz hitz egitten ari giñan, eta Fblizjak albotik esan zigun: "Hagan el favor de hablar en cristiano". Eta guk galdetu giñan: "Acaso han prohibido hablar en euskerar, eta berriz gauza bera esan ziguen. Hurrengo egunian, egunkariko titularretan ondorengo irakurri gendun: "El vascuence es Monumento Nacional". Orduan Poltzia harek aurkittu izan banittu, egunkarixa eruango niueke.

Gerora debekau egin zebeu, baiña *Monumento Nacional* irakuni nabanian sekulako poza hanu naban. Eskolan dotriña jasotzen gendun euskeraz jaunartzia egitteko, baiña gaiñuntzekua erderaz, gure anderenua erdalduna zandana.



## [GURE BERBAK]

### Egittura aip arri batzuk (6)

Ahozko jardunian askoton gertatzen dan kontu bat aittatu nahi nuke gaurkuan. **U** : :ua ematerakuan, lehenbizi eman ncr iten da infarmazio garrantzitsuena, eta g, :uogorako - da bigarren maillakua dana. •••• hortaz, aldatu **egitten da** scr -abarmendu nahi dana ourretik emateko.

Adibide batzuekin argixago ikusikoi dogu hau fenomenoau (azpimarratuta jarri dot nabarmendu nahi dona eta letra etzanez **bigarren** marl xena):

- *Hobe tuagu alde egittia hamendikan, igual bidia ebagiko luek hor Urkaregiñ, da ezin pasauko nok Markiñara.*
- *Oin ba4akazue ganaurik? - Ardixak oir".*
- *Ze ganau daukazu? - Ahunizak hiru. Astua, bat Bihorak,*
- *a gero gari harekin, beste problema bat egoten zuan. Eruan bihar izeten zuan ba Mendarora errotara.*
- *Da gero beste gauza bat zuan: garua mendixan.*
- *Jungo al gaittuk kalera? - Ez oindik!*
- *Hamen geldittuta gau batian, gabeko bederatzirak-hamararak inguruan akordatzen naiz nola tren bat etorri zan espeziala, neu ere allegau nitzan Afizolaraiño, eta henduak-eta aldatu eta hoteletara, zerera, balnearixora.*

Jesus Mari Makazaga

**JOSE, //4/£, U**  
(Txema)

**-Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.**

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14



**URKIDI** AHOLKULARITZA

KONTABILITATE  
LAN  
FISKAL

Kalamua, 12 • ELGOIBAR  
Tel-Faxa: 943 74 1 B 91

**HARTFORD**  
ASEGURUAK

## DOWN SINDROMEAK

# OZTOPOEN GAINETIK AURRERA

*Denok ezagutzen dugu down sindromea daukan pertsonaren bat, baina askok ez dakigu benetan zer den down sindromearekin bizitzea. Gaurkoan, gertutik bizi nahi izan dugu gai hau eta down sindromea duten bi umeen gurasoak ekarri ditugu gure artera. Pili Morenza, Anderren ama, eta Igone Astigarraga, Gillermoren ama. Anderrek lau urte ciltu eta Gillermok 13. Gainontzeko gizakiek baino kromosoma bat gehiago dute, horrek eragiten du down sindromea. Baina zertan eragiten du down sindromeak? normalean adimenari eragiten dio, baina pertsona bakoitzak modu desberdinean jasaten ditu sindromearen ondorioak Bi emakume hauek euren esperientzia kontatu cligute.*

### Noiz jakin zenuen zure semeak down sindromea zeukala?

**Pili:** Jaio zenean, ordura arte ez nuen ezer jakin. Down sindromearekin jaioko den ala ez jakiteko modu bakarra, haurdunaldian amiozenfesia egitea da, eta nik ez nuen egin. Gaztea nintzen eta berez, ez neukan inongo arriskurik, eta proba hori umearentzat nahiko arriskutsua denez, ez egitea erabaki nuen.

**Igone:** Jaio arte ez genuen ezer jakin. 9 hilabete

baino lehenago jaio zen eta inkubadoran egon zen egun batzutan. Onduan esan ziguten medikuek, down sindromea zeukala uste zuela. Geroago ziurtatu ziguten. Nola hartu zenuten?

**R:** Hasieran gogorra da. Jaio eia handik egun batzuetara esan ziguten medikuek gure semeak zer zeukan. Zerbait nabari zitzaion, baina ez zen oso argi ikusten. Beharrezko proba guztiak egin zizkionten konfirmatu ziguten down sindromea zeukala, baina osasunez ondo zegoen eta horrek fasaitu gintuen. Gurasoentzako oso tristea da semea ospitdera eramane beharra eta gaixorik dagoela ikustea.

**I:** Gaizki. Oso zaila da hori ulertzea. Gurasoek umea eduki behar dutenean, hauna ondo egotea nahi izaten dute, inork ez du espero bere semea down sindromearekin edo beste edozein ezgaitasunekin jaioko denik. Denak seme perfektua espero dugu. Poliki-poliki onartu egiten duzu, baina sufri-

mentu gogorra da. Bizitzan sentitu dudana minik handiena izan zen.

Haurdun zeundela jakin izan bazenu, zer egingo zenuke?

**P.:** Nire burua ezagututa, aurrera egitea erabakiko nukeela uste dut. Gainera, umea ezagutu ondoren, ez nintzaieka damutuko.

**I.:** Ez dakit, hori ezin dizut erantzun. Asko-

tan egin didate galdera hori, baina oso zaila da horren erantzuna ematea.

### Ba al zenekiten zer zen down sindromea?

**P.:** Ez geneukan ideiarik ere. Entzunda bai, baina familiako inork ez zekien zehazki zer zen. Egin genuen fehenengo gauza horixe izan zen, down sindromea zer zen galdetu eta horren inguruan informatu.

Teorikoki bai, baina une hartan dena galderak ziren eta ez geneukan erantzunik.

«Nire semea  
zoriontsu  
izatea da  
garrantzitsuena»

PILI

### Eta, zer da?

**P.:** Down sindromea daukaten pertsonen kromosoma bat gehiago dute, eta kromosoma horrek aspektu desberdinetan eragiten die. Aurpegian, mugikortasunean, adimenean, gure semeari aurpegian ez zitzaion hainbeste nabaritzen, horregatik sendagileak hasieran ez zeuden seguru. Batez ere adimenari eragiten dio.

**I.:** 21. kromosoma parean aparteko bat gehiago edukitzea da. Giza gorputzaeko zelulek 46 kromosoma dituzte 23 paretan, hauek 47 dituzte. Honek ezaugarri bereziak ematen dizkie: aurpegiko rasgoak, hipotonia muskularra edota maila desberdinetako adimen urritasuna. Gauzak ikastea



askoz gehiago kostatzen zaie eta gauzak erakusteko baliabide gehiago erabili behar dira. Dena polikiago doa. Konstantea izan behar da beraiekin eta gauzak bost aldiz errepikatu beharrean, hauei 100 aldiz errepikatu behar zaizkie.

#### **ATZEGI edo antzerako erakundeetara joaI duzue?**

**P.:** Bai, hasieratik eta izugarri lagundu gite. Down sindromea eta beste gutxitasun batzuk dauzkaten umeen gurasoak biltzen gara. Esperientzia desberdinak ezagutzen dituzu eta oso lagungarria da.

**I.:** ATZEGI Elkarte da, ez dauka estimulazio programarik, beste zerbitzu batzuk ditu. Guk Foru Aldundiak zeukan estimulazio programa baten hartu genuen parte umeak 3 hilabete zituenetik 3 urte bete arte. Astero joaten ginen. Bartzelonako zentro batera ere joaten ginen eta oraindik jarraitzen dugu. Orientazio laguntza handia jasotzen dugu eta etxean egiteko ariketak ematen dizkigute.

#### **Zenbat urte dauzka orain zure semeak?**

**R.:** Anderrek 4 urte ditu. Oso pozik gaude berarekin, oso maitagarria da. Beste ume bat bezala tratatzen dugu eta ezin zaio nahi duen guztia egiten laga, enieta ere egin behar zaio gauzak ikasteko. Berarekin haserretzen banatz, berehala etoritzen zait mimoak egitera. Oso sentibera da.

**13** urte ditu. Ikastolara joaten da eta ondo moldatzen da. Txikiak direnean errazagoa da, urteak aurrera joan ahala, gainontzeko umeekin daukan diferentzia handiagoa da. Lan handia egin dugu Gillermorekin. Hiru hilabete zituenetik hasi ginen, eta oraindik lanean jarraitzen dugu. Guraso izaten ere ikasi dugu.

#### **Ba aI dira euren kabuz bizitzeko gai?**

**R.:** Bai, gainontzekoei baino gehiago kostatzen zaie gauzak ikastea, baina badira ikasteko gal Jende askok esaten dit ume hau betirako niretzat izango dela, baina nork daki? Beharbada bere ikasketak egingo ditu, bere lana izan dezake, edo maitemindu egingo da... gero eta gehiago daude beren bizimodua egiteko gai direnak

**I.:** Gure ahalegin guztia hortan oinarritzen da, berak ahalik eta autonomia handiena lor dezan nahi dugu. Guretzako hori da garrantzitsuena. Segunienik laguntza beharko du, ez zuzena, baina bai norbait

erreferente moduan. Gure nahia bere eguneroko bizitzan bakarrik moldatzeko gai izatea da.

#### **Zein zailtasun izan dituzue?**

**P.:** Momentuz ez dugu inolako zailtasun berezirik izan. Idazten eta irakurtzen ikasteko eskola berezi batera eramaten dugu astean behin. Pazientzta gehiago eduki behar da. Gauza txikiak ikasten dituela konturatzen naizenean sekulako poza hartzen dut. Berak ahaiegin handia egiten du gauzak ikasteko eta lorpen txikiak, berretzat oso handiak dira.

**I.:** Oso haur mugitua da Gillermo, orain la-

«Gillernno bere kabuz bizitzeko gai izatea da gure nahia»

IGONE

saiago dago. Gurasoren bat edo zaintzailea uneoro berarekin egon behar izaten zen. Horrek tentsio handia sortzen zigun, hori izan da zailencr. Orain ingunia kontrolatzen du, bere buruarekin konfiantza gehiago dauka eta hobeto daramagu.

#### **Ingurukoek nola tratatzen dute?**

**P.:** Oso ondo. Oraindik umea da. Uste dut ez dela konturatzen gutxitasun fisiko hori daukanik.

**I.:** Oso ondo, ez dugu arazorik izan, Ikastolan laguntza handia jaso dugu, baina horrek ez du esan nahi integratuta daudenik Goi honekin oso **kritikoa** naiz.

Gizarteak onartzen ditu, baina euren bi-dean ez zaizkie beharrezko baliabideak jartzen. Lan handia dago egiteko.

#### **Umearen etorkizunak ematen al dizu beldurrik?**

**P.:** Bai, beti pentsatzen dut gu falta garen egunean zer egingo duen, baina horrek ez dauka bueltarik Aurrera egin behar dugu, ahal dugun maitasun gehiena eman eta zoriontsu izan dadila. Bera zoriontsu izatea da garrantzitsuena, eta momentuz lortu dugula uste dut. Nik oso zoriontsu ikusten dut.

**I.:** Bai, baina beste semearenak kezkatzen nauen bezaloxe. Orain pianoa eta perkusioa ikasten ari da. Nik uste dut zoriontsu dela, eta hori da inportanteena.

#### **Bigarren seme bat ere badaukazue. Izan al zenuten kezkarik 2. haurdunaldian?**

**P.:** Apur bat kezkatzen ninduen, baina genetikoki ez geneukan arriskurik, beraz, nahiko lasai nengoan.

**I.:** Bai, bi urte eta erdi beranduago jaiotzen lñigo. Haurdunaldian duda eta kezka bat izan nuen. Gillermorekin izandako aurrekariak hor zeuden eta normala da. Baina Gillermo jaiotzean proba batzuk egin zizkiguten eta alterazio kromosomikorik ez geneukala esan ziguten. Loteria bat izan zen.



## PROTAGONISTA



### Jesus Larrañaga

74 urte zituela hil zen asteazkenean Jesus Lan-añaga "Plaentxi". Jaiotzez Soraluzekoa, 1954. urte ingunian etorri zen Elgoibarrera. Sigma eta AGME enpresetan egin zuen lan eta jubilatuta arteko urteak Azkoitiko Danobaten egin zituen. Euskalduna eta euskaltzalea zen. Lan handia egin zuen euskararen inguruan: 1956an euskaldunize alfabetatzean, 58an gazteei euskara irakasten, Ongarriren eta dantza taldearen sorreran ibili zen. 62an lkastola sortzeko makina bat borrokatu zuen, eta 63an Elgoibarko Izarraren sortzaileetako bat izan zen. Bitartean euskal jaiak eta beste mila lan txiki burutu zituen.

## NOTIZIA

### 2008. urte amaierarako bukatuko dituzte Ubitarte Buruko Babes Ofizialeko Etxeak

2004ko uman egin zen Ubitarte Buruko Babes Ofizialeko Etebizen zozketo, eta ordu hartan 2007rako etxebizitzak bukatuta egongo zirela esan zuten arren, badirudi epe hori atzeratu egingo dera. Etebidetik jakin izan dugunaren arabera, 2008. urteko laugarren hiruhilabetekorako bukatuko dituzte.



#### 99 etxebizitza eta 160 garaje

Bi bloketan banatuta, 99 etxebizitza eraikiko dira guztira. Lehenengo blokeak 19 ebcebizitza izango ditu eta bigarrenak 80. Etebizitza guztiek garajea eta trastelekua izango dute, eta gainontzeko garajeak salgai jarriko dira. Bi bloke hauen artean San Roke auzorako pasabidea joango da, trenbide azpitik. Ete-

bizitzak mota desberdinetakoak izango dira: logela bakarreko etxebizitza bat, bi logelako 46 eta hiru logelako 52 eixebizitza. Prezioari dagokionean, merkeenak 69,300 euro balioko ditu eta garestienak 119.300 euro.

### ZENBAKIA ]

# 250.000

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2006an Eigoibarko Udalarari emango dizkion diru laguntzetatik, 250.000 euro etxerik gabeko

personentzako etxerik gabeko etxe bakoitzeko erabiliko dira. 2006ko aurrekontuetan hau izango da berrikuntzarik garrantzitsuenetakou

## asteko [ ARGAZKIA ]



Joan zen larunbatean beste istripu bat izan zen Madalako errotondan. Azken hilabetean bi istripu izan dira errotonda honetan eta badirudi puntu arriskutsu bat dela gure herrian. Egia esan, ordu puntuetan trafiko handia pilatzen da bertan eta arazo asko sortzen Einbiou Herri Plataformakoek errotonda itxi bat eskatzen dute, baina momentuz behintzat, eskaera horrek ez du erantzunik izan. Oinezkoentzat semaforoa beharrezkoa da, baina autoentzat badirudi errotonda itxiek hobeto funtzionatzen dutela.

## 15 pertsonentzako lekua izango du Mendaroko Eguneko Zentroak



Jean zen hilaren 9an inauguratu zen Mendaroko Eguneko Zentroa. Udale-ixeko ordezkarienez gain, Esther Larrafiaga Foru Diputatua izan zen inaugurazio ekitaldian.

### 15 lagunentzako zentroa

Eguneko Zentroak 15 lagun hartuko ditu egunero. Bertan, adineko pertsona ezinduei eguneroko laguntza eskainiko zaie. Bestalde, babestutako ekebizitzetan beste 6 pertsoneri eskainiko zaie zerbitzu bera. Honek guztiak 795.306 euroko aurrekontua dauka. Horietatik, 414.983 euro,

hau da, %52, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuak jarri ditu. Foru Aldundiak eta Mendaroko Udalak lankidetzaren hitzarmen bat sinatuko dute eta horren bitartez foru erakundeak urtero 30.000 euro jartzeko konpromisoa hartuko du zentroa mantentzeko. Babestutako etxebizitzak udalak finantzatuko ditu.

Eguneko Zentro berria Azpilgoetako elizartik gertu dago. Lokal honek 160m<sup>2</sup> ditu: biltokia, sukaldea, bulegoa, komuna eta bainu geriatrikoa, jardueretarako eta aisedenaldirako guneak eta jantokia ditu, besteak beste.

## MOTZ-MOTZIAN

Torturaren kontrako kontzentrazioa

Otsailaren 13a Torturaren Aurkako Eguna izan zen eta elgoibartarrek kontzentrazioa egin zuten Plaza Handian. Bertan, tortura eta Audientzira Nazionala desagertzearen aldeko manifestua irakurri zuten. Honen arabera, azken 26 urteotan 8 euskal herritar hil dira torturapean eta 6.000 tortura salaketa baino gehiago jaso dira. Torturarekin betirako amaitzeko aldarrikapen batzuk egin zituzten.



Gazteen eskubideen aldeko mobilizazioa

"Gazteen eskubideen alde, eskubide zapaltzaileen kontra kaleak gorrituko ditugu" lemapean, mobilizazio eguna izango da otsailaren 23an. Goizeko 10:00etatik aurrera greba egingo da Euskal Herriko rkastetxe guztietan. Bailara maiian Eibarren manifestazioa egongo da 12:30ean eta kalejira 19:00etan.

Merkatu Plazako zozketa

Hilabete honetan 60 euroko hiru txeketan banatu dituzte Merkatu Plazako dendariak. Emi Martin, Mari Cruz Roman eta Yoianda Alvarez izan dira irabazleak Saria Merkatu Plazako dendetan gastatu beharko dute.



## Osakidetzaren Euskara Plana salatu du Einbiouk

Einbiouk Osakidetzaren Euskara Plana oso eskasa dela adierazi du. Elgoibarko Osasun Zentroan euskararen egoera larria dela adierazi dute. Osakidetzaren Euskara Planaren arabera, ordea, Osasun Zentroak euskara maila nahikoa

dauka. Beraz, Einbiouk gai honen inguruko eztabaida bat zabaltzeko eskatzen dio Udalari eta bide batez, egoera hau hobetzeko Osasun Zentrua euskalduntzeko plan egoki bat udal aurrekontuetan sartzea eskatzen dute.

	Medikuak		Haur zaintza		Erizainak (emagina ere)		Harrera/adminis.	
	2006	2011	2006	2011	2006	2011	2006	2011
Euskaldunak	2	2	1		7	3	5	6
Guztira	10	10	2	2	12	12	10	10


Futbolari eta modeloak dira euskal gazteen erreferentzia nagusiak.

fi

## FELIX MUÑOZ

Jubilatua

61 urte



Orain ez, baina mutikoa nintzenean Johan Cruyf gustatzen zitzaidan gehien. Iribar eta Arkonada ere bai. Andaluziarra izan arren, Realzalea naiz."

## ESTHER BARTOLOME

Komertziala

38 urte



z, eta gaztea nintzenean ere ez neukan, estereotipoek ez didate inoiz eragin. Idolo errealagoak eduki beharko fi tuzkete gazteek edo bat ere ez edukitzea hobe."

## AITOR MURUA

Ikaslea

11 urte



Futbola gustatzen zait, eta jokalariren bat aukeratzeko-tan Morten Skouborekin gertzen naiz. Goi asko sartuko ditu eta Realzalea zuloatik aterako da."

## ANE GALA

Ikaslea

14 urte



"Rona Idin ho gustatzen zait, oso ondo jokatzen du, baina ez da nire idoloa. Josh Harnett aktorea ere gustatzen zait, baina ez naiz oso mitomanoa."

## [ BAI ala EZ?

Ba al daukazu San Balentin Eguna ospatzeko ohiturarik?

**tsmi %8**

"Bai. Badakit dende asmatutako eguna dela San Balentin, baina egun polita da maitasunaz gozaizeko. Hori bai, egunero izan behar da San Balentin, bestela egun honek ez dauka zentzurik"

**%92**

daukat ohiturarik Gizarte kapitalista eta hipokrita honi, noizean behin, muzin egiten ere asmatu egin behar da. Maitasuna bai, San Balentin ez."

Datorren asterako.... Hegazti gripearean birusa atzeman dute Alemanian.

**negaztien gripea gure artera kitsiko dela uste al duzu?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) ERANTZUNA

**7505** zenbakira

SMS kosiva: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

## Elurra eta hotza izan ziren IMH Eguneko protagonista nagusiak

**E**lurra mara-mara esnatu zen urtarrilaren 27a eta hoiz izugarria egiten zuen. Hala ere, IMHko ikasle eta irakasleen animoak ez ziren itzali eta ezin hobeto ospatu zuten IMH Eguna. Joku eta txapelketa desberdinak izan ziren, hori bai, gehienak eskola ban-uan burutu ziren, kanpoan ez baitzen giro. Patata tortila, salda eta txorizoarekin berotu zituzten barrenak Eguerdian bazkaria egin zuten eta ondoren opari mordo zozketatu ziren.

### Ate Irekiak

Joan zen otsailaren 9an IMHko Ingeniaritza Eskolako ate irekien eguna izan



zen. Bertan, txandakatze sistemari buruzko informazio zabala eskaini zen, lan egin eta ikasteak dituen abantailak azpimarratu ziren, batez ere.

## IKAS KONTUAK

### Arrainekin lotan

Atxundamaika Aisialdi Taldeak antolatuta, Donostiako Aquariumean pasatu zuten gaua Elgoibarko hainbat umek lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailako umek marrazo eta beste hamaika arrain mota desberdinez inguratuta egin zuten lo ostiral gauean. 15 ume eta bi begirale joan ziren guztira. Aquarium-eko museoa bisitatu zuten, ondoren bertako jatetxean afaldu eta gero, zakuak prestatu eta kristalezko tunelean egin zuten lo, arrainak berain inguruan igerian aritu zirelarik



### Kiloaren Kanpaina Elgoibar Ikastolan

Azken urteotan egin duten bezalaxe, aurtengoan ere Kiloaren Kanpainan parte hartu dute Elgoibar Ikastolako ikasleek. Ekimen honen helburua Caritasentzako janari kiloak biltzea da. Ondoren, Caritasek beharra duten herritarren artean banatzen du bildutako janari guztia. Elgoibar ikastolako ikasleak fin-fin aritu dira aurtengoa ere eta guztira 306 kilo janari bildu dituzte.

## [ IRTEERAK ]



### Pilar Ikastetxeako Sastarrainen

Pilar Ikastetxe DBH 1. mailako ikasleak Zestoako Sastarrain baserrian izan ziren egun batzuk pasatzen. Bertan ekintza desberdinak egiteko aukera izan zuten eta paisaje bikainaz gozatu zuten. Naturarekin harremanetan, eguraldi bikainekin eta lagunarteko giro ezinhobean pasatu zituzten egunak. Esan digutenez esperientzia oso polita izan zen.



### ar BH Institutu o as eak Iparraldean

Batxilergoko 2. mailan euskaikiak lantzen direnez, aurtengoa ere Iparraldera egin zuten Meera Elgoibar BH Institutuko ikasleek Lapurdin, Hendaiako "Abadia jauregia" ikusi zuten, bertako euskalkian azalpen interesgarri asko entzunez. Nafarroa Beherean, Otsozelaiko leizeak bisitatu zituzten Isturitzen. Klase praktikoa bikaina izan zuten.

## ► ERIKA VARGA HUNGARIA [EUROPA]

### «Hungarian baino gutxiago behar du hemen jendeak zoriontsu izateko»

SZOMBATHELY HIRITIK GERTU DAGOEN TANAKAED HERRIKOA DA ERIKA VARGA (22 URTE). HUNGARIAKOA, ALEGIA. MENDAROREN TAMAINAKO HERRIA EI DA, AUSTRIAKO MUGATIK GERTU DAGOENA. ORAIN SAN MIGELEN BIZI DA NESKA HIZLARI ETA ALAI HAU. 2004KO IRAILAREN 21EAN IRITSI ZEN GURE ARTERA ETA ASTE HONETAN HASI BERRI DA EUSKALTEGIAN EUSKARA IKASTEN.



#### ► Nolako bizimodua zeneraman Hungarian?

Museotarako keramika eta egur zaharberritzaile ikasketak bost urtean atera ostean, Szombathelyko museoan jardun nuen lanean, arkeologoek aurkitutako aztarnak garbitu, txukundu eta antzerakoak eginez.

#### > Ikasketa bitxiak.

Europa erdion dagoen herrialdea izanik, kolonizatzaile eta kultura asko pasa dira Hungariatik historian zehar, eta lurak aztarna arkeologiko mordoa ezkututzen ditu. Halere, hemen aintzinako aztamak errespetu gehiagoz zaintzen direla uste dut. Bestalde, hungariar ikasleek asko borrokatu behar dute etorkizun ziur bat eskuratzeko. Unibertsitate ikasketadun gazte askok ez du lanik topatzen eta fabriketan amaitzen dute. Jubilatutako osteko pensioa ere oso baxua denez, langileak lanean larraitzera behartuta daude. Europar Batasunean sartzekotan gine-la etorri nintzen eta jendea kontent zegoen, baina orain bizi naiz Europan.

«Euskara eta hungariarraren gramatika berdina da»

#### > Zer beste ezberdintasun aurkitu duzu hemen?

Han baino gutxiago behar du lendeak zoriontsu izateko. Hungarian beti diruaz arduratuta bizi dira. Hemen gutxitan entzun dut jendea diruaz berbetan. Dirua bada-go, aprobetxatu egingo dugu eta ez badago bilatui.

#### > San Migelen bizi zara, ezta?

Bai, Kontxi Loiola eta bere ama, amama Mariarekin batera. Biei muxu handi bana emateko aprobetxatu nahi dut. Sanmigeldantak eta Belaustegikoak -han hasi nintzen lanean- bigarren familia modukoa dira niretzat. Azken bi Gabonak Sagarraga baserrian igaro ditut. Lehen urtean ez nuen tutik ulertzen, aurtan bai. Amama Mariaren 8 se-

me-alabak eta sendiak elkartzen dira eta ni adoptatutako iloba modukoa naiz.

#### ► Non ikasi duzu gaztelerez?

Kalean ikasi dut, klasera joan gabe. San Migelen bizitzearen ondorioz, eta amamari esker, berba batzuk ez dituz gaztelerez ezagutzen eta euskaraz ateratzen zaizkit. Jendeak gaztelera eta euskara farketatzeak zaildu dit askotan gaztelerez ikastea. Orain euskaraz ikasi nahi dut, aste honetan bertan hasi naiz euskaltegian, hain zuzen ere. Gramatika hungariarraren berdina da eta baita beste egitura batzuk ere.

#### ► Zertan diharduzu lanean?

lan bila nabil. Orainsu arte Iriondo tabernako sukaldean egon naiz eta kontratua amaitu zitzaidanean familia bisitatze-ko aprobetxatu nuen: 16 hilabetean ikusteko nituen. Pare bat aste egon naiz eta ezusteko ederra eman nion amari. Lagunek, berriz, jadanik ez ninizela hungariarra esan zidoten. Min eman zidan arren, egia esan, hemengo izateko eta bizitzeko era gogokoago ditut. Itxiagoak dira hungariarrak eta bizimodua eta jentilea grisa da. Hemen, aldiz, arratsaldean kalera irteten eta Plaza Handian haurrak jolasean ikustea ikaragarri gustatzen zait. Han, bizipoz horren falta somatzen dut. Hungariarrek familia bat izateko, etxea, autoa eta lan egiten dute, baina ez benetan bizitzeko. Gainera, Inklividualistagoak gara, hemen lagunarte handiagoan bizi zarete; dela lagunak, koadrilakoak, familiakoak...

#### ► Ikus daitekeenaren arabera zuk ez dirudizu ba oso ificia?

Keba, oso irekia naiz jendearekin tratuari, izakera latineagoa dut, pronto

gehiago edo gehiegi. Pentsatzen dudana esateak arazo bat baino gehiago sortu izan dit, eta hobe batzuetan ixilduko banintz. izan ere, zoro xamarra ere banaiz, txispa baten erruz eztanda egiteko zorian dagoen bonba modukoa batzuetan, eta beste batzuetan, berriz, lasaitasuna bilatzen dut. Irakurtzea eta margotzea gogoko ditut.

#### Zer etsmo dituzu etorkizunera begira?

Momentuz nere gazielerara hobetu eta euskaraz berba egiten ikastea dira nire hurrengo erronkak. Gero zerbait ikasten jarraitzea gustatuko litzaidake. Faltan botatzen dut-eta. Gustalzen zaizkidan lanak egin ahal izateko behar-ezkoa da ikasketak edukitzea. Hungarian esaterako, etorri aurretik haurren psikologia ikasten hasia nintzen.



### HUNGARIA

- **Hiriburuc:** Budapest
- **azalera:** 92.340 km<sup>2</sup>
- **populazioa:** 10,1 milioi biztanle
- **religioa:** Katolikoa (%67,5), kalbinista (7020), lutrano (%5).
- **etorkizunekoak:** Hungariar magyarraren ondorengoak), alemaniar (V02,6), serbiar (%2), ijito (9147)



# GAZTIA NA12

## Gazte aia...

# AUKERATZEKO

BIZITZA ERABAKIAK HARTZEA ZELA ZIOEN BATEK, ETA HALAXE DA. UNEORO ERABAKIREN BAT HARTU BEHAR IZATEN DUGU ETA ORAINGOAN BATXILERGOKO IKASLEEK ERABAKI GARRANTZITSU BAT HARTU BEHARKO DUTE. HAIN ZUZEN ERE, BIZITZAKO LEHEN ERABAKI GARRANTZITSUA HARTZEKO ATARIAN DAUDE 16 ETA 17 URTEKO GAZTE ASKO: IKASTEN JARRAITZEA NAHI DUTEN ERABAKI BEHAR DUTE LEHENIK, ETA ONDOREN, ZEIN IKASKETA EDO UNIBERTSITATETARA JOAN NAHI DUTEN AUKERATU. INGENIARI, MEDIKU, IRAKASLE... IZAN NAHI DUTEN AUKERATZEN HASTEKO GARAIA DA.

**G**auzak argiegi izaten ez diren adinean etorkizun profesionalaren lehen harria jartzen hasiko dira ikasleak Hori dela-eta, jaso dezaketzen informazio eta laguntza guztia gulxi da. Ikasketak aukeratzeko hainbat gauza hartu behar dira kontutan: lanerako sarbidea, gertutasuna, egoera ekonomikoa eta gustukoa izatea, noski. Ikastenceek erabakia behar bezala hartzen lagunduko die; aholkuak eta informazioa eman ez eta baita elkarrizketak eta testak eginez ere. Hauxe da Elgoibar Ikastolako Feli AJberdi eta Elgoibar BH Institutuko Marijo Garmendia ortentatzaileen lana.

### Unibertsitatea gehiengoaren aukera

Ikasketa unibertsitarioen aldeko joera Lanbide Heziketari nabarmen nagusitzen zaiola aipatu digute bi orientatzaileek **"Batxilerrean** dauden bost aukeretatik lau, bide unibertsitarioa jorratzen dutenak dirda kontutan hartu behar dugu. Hala ere, beste joera bat ari da nagusitzen: batxilergoan bide unibertsitarioa egin arren, bi urteko goi mailako ziklo formatiboren bat egiten dute askok unibertsitatara pasa aurretik Selektibitatea egin beharrik ez

dagoen arren, selektibitatea aprobatu duten ikasleek ere aukeratzen dute bide hau. Oso interesgarria eta egokia deritzot. Bi urte hauetan heldutasuna hartzen dute eta ikasten jarraitzeko motibagarriak izan



daitezke. Enpresaritzak eta enpresaritzak ikasketetarako bide egokia izan daiteke. Automozioa eginez gero, esaterako, sarrera zuzena dago ingeniari tekniko ia guztietara. Ingurugiro osasuna eginez gero, berriz, erizantzara" azaldu digu Marijo Garmendiak

Lanbide Heziketatik jarraitzea erabakitzen dutenen artean, Elgoibarko IMHra joateko joera dagoela argitu digu Feli Alberdik "eroso geratzen zaie, herrian ber-

tan baitago eta izen on bat egina du. Lanbide Heziketako ikasketek lehendik galdu ta zeukaten izen on hori, ez behar beste, baina berreskuratu dute, zorionez. Goi eta erdi mailako Lanbide Heziketaren artean ere ezberdintasunak somatzen dituzte ikasleek. Beharbada izen hobea dute goi mailako ziklo formatiboek".

### Ikasketa aukeratuak

Ingeniarazak eta enpresaritzak ikasketak ei dira karrera aukeratuak Elgoibarren. Bizi dugun inguru industrialak eta lan munduan irtenbide gehiago eduki dezakete la usteak bultzatuta, beharbada. "Gizarteko tslocia diren heinean, ikasketa batzuk neskenok edo mutilenak izaten jarraitzen dute oraindik Hala izanik ere, mutilen esparrutzat hartutako alorretan muturra sartzen hasi dira neskek, ingeniari zaka, nahiz eta aurtengo ikasturtean nesken artean inork ez duen ingeniari zartk aipatu lkasiolan. Aurten nesken artean, kazetari zaka, filologia bat edo beste eta batez ere, magisteritzak aipatu dituzte. Lanbide heziketa ez du neska batek ere aipatu" azaldu digu Feli Alberdik BH Institutuan, berriz, ingeniari zaka zientifiko-tekniko adarra izarra da. Osasun adarrean denetarik dago: medikuntza, erizantza eta fisioterapia dira dauden 15 ikasleen aukera nagusiak".



# BARREN

## (ZAIABA,

Lan munduaren egoerari buruz gutxi aipatzen diegu, batetik lan mundua oso aldatzen delako, eta bestetik, 16 urterekin ikasten jarraitzeko asmoa duenari urrun gertatzen zaiolako. Adin hauetan beraien interesak indartzen saiatzen gara. Ikaslearen gaitasun kognitiboak, lan ohnurak, notak, eta interesak kontutan hartzen ditugu. Dena aztertu eta aholkua ematen diegu.

Marijoren iritziz, merkatuan izan dezaketen sarbidea baino, gero eta gehiago errespetatzen da ikaslearen perfila. Zientziak edo gizarte zientzietako ikasleen perfila argi azaleratzen diren arren, denerako balio duten ikasleekin izan ei da zalantza gehiago: batzuk historia egin eta pozik, biologia pasioaz eta ingeniariartzaren bat ere gustura egingo lukete. Halere, lan sarrera edo merkatuko datuekin sendotzen dugu ikaslearen per-

fila". Bakilergoko bit urteek hainbat arlo ikusi eta interesak zabaltzen joateko aukera ematen du Feliren ustez, "karrera konkretu bat edo beste aukeratu baino, mundu hau gusztatzen zait esan behar dute hasieran eta sakonagotik ezagutu ondoren".

Ikaslearen bizitza modukorik ez dela esaten da, baina luzea ere bada eta erabaki garrantzitsuak hartzera behartuta daude. Gainera, lizentziatura edo diplomatura bat lortu arren ere, hizkuntzak, informatika, giza harremanetarako tresnak ezagutu, eta beste hainbat tresna menperutzea eskatzen zaie lan merkatuan sartzeko, toterrenoak izatea, alegia. Bidea hasten duenaren ilusioak gidatuko al ditu.



> ictiwra

*unibertsitatea*

**hicktiazJa**



**1979** urteko ekainean atera zuten argazki hau Aita Agirre eskolako jolaslekuan. Urasandi auzoan jaiak antolatzeko ohiturak bizirik zirauen artean eta Galiza Etxeak auzoko ez-konduen eta ezkongabeen arteko futbol partida antolatu zuen jaien egitarau barruan. Adin batetik aurrerako auzotarrek gogoan izango duten moduan, zezentxoak ere askatzen zituzten Urasandiko kaleetan garai hartan. Xabier Euskitzek ere bertan egin omen zuen jendaurreko lehen bertso saioretako bat, oraindik ezaguna ez zenean. Pare bat urte gehiago iraun eta bertan behera geratu zen jaiak ospatzeko ohitura. Aipatu digutenez, ezkongabeek 2 eta 1 irabazi zuten futbol partida, alabaina, ezkongaduek penalti bat huts egin eta bi aldiz zutoinean jo ostean. Real Madrileko begircstzaileak ere ez ei ziren urrun". Ikus dezagun nortzuek osatu zituzten taideak: Tente, ezkerretik eskumara: **Angel Etxabe, Karmelo Lasuen, Isidro Viñaras, Nicolas 'Aldakos', Pedro Azpiazu, Ovidio Campello, Juan Carlos Palacios, J. Luis Diez eta Venerando Cid.** Makurtuta, ezkerretik hasita: **Santiago Agea, Patxi 'Artetxe', Jose Gomez, Javier Arriola, Hilario Esnaola (t), Patxi Garcia, Andres Ondarza eta Florentino Ortega.** Arbitroa: **Luis Ondarza.**

**MICHELIN**



Alineazioa ez dago  
prezioren barne

## ESKAINTZA

\*ESKLKANA eta BEZ-o prezioan barne.

REF.	DESKRIBAPENA	PREZIOME	REF.	DESKRIBAPENA	PREZIOA
958337	175-65-14E3A (T)	71,46	818521	195-60-15E3A (H)	100,04
860809	165-65-14E3A (T)	62,88	868762	195-65-15E3A (V)	102,42
881923	175-70-13E3B (T)	60,03	137266	205-50-16 (V) PRIMACY	151,95
502818	165-70-13E38 (T)	58,12	688397	185-65-15E3A (H)	102,42
72716	185-65-15E3A (T)	80,98	458398	205-55-16E3A (V)	134,33
766215	175-70-14E3A (T)	72,41	137268	205-55-16E3A (V) PRIMACY	134,33
136227	195-65-15E3A (H)	96,23	136276	215-50-17 (W) PRIMACY	221,02

**Giauto** ELGO1BAR BERGARA • ARRASATE EIBAR • ANOETA - OLABERRIA



[www.giuto.es](http://www.giuto.es)  
[clientes@giuto.es](mailto:clientes@giuto.es)

902 345 125

- Euskalduntze maila guztiak (1. eta 2. maila Egiaztatzeko agiriak)
- E.G.A.
- Administrazio - irakaskuntzako perfilak.

- Langabetuak, gurasoak eta ikasleak:
- MATRIKULA ERDIA
- BEkak
- UDALARI ESKER

ESKOLAK GOIZEZ, ARRATSALDEIYETA (11) \UP' )



*aek*

[elgoibar@aeknet.net](mailto:elgoibar@aeknet.net)

## Chevrolet harrigarriagoa da.

Ez baduzu sinesten 0-km.koa dela, begiratu prezioa.



**Lacetti** 1.4 SE. 0 Km - 11.700 €

**Nubira** 1.6 SE. 0 Km - 11.700

Orain 2005ean matrikulatutako Lacetti edo Nubira bat (0 km) prezio onean eduki dezakezu. Berri baten zerbitzu eta ekipamenduarekin. Estreinatzen duzula esan dezakezu, guk gordeko dizugu sekretua.

**Gicruto** 902 345 225

Otaola Etorbidea, 27 • EIBAR • Tel.. 943 70 08 41  
 Karobi Industrialdea z/g OLABERRIA Tel. 943 88 51 50  
[clientes@giauto.es](mailto:clientes@giauto.es)

[www.chevrolet.es](http://www.chevrolet.es)



CHEVROLET

Chevrolet gehiago da.



# Gremioen

# GIDA

## Aroztegiak

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
t: 943 74 31 16

### Etxekit

Sukaldeak eta bainuak  
Antonio Arrillaga, z/g  
c. 943 74 43 47

### Garcla

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
cl 943 74 32 38

### Imar

Erreformak  
w 943 53 14 71  
s: 646 90 55 64  
w 609 05 49 78

### Lodoso

Leihoak  
Sigmako industrialdea  
Xixilion 2-2. pabilloia 3. zenb.  
IR 943 74 34 90

### Soraluze

Leiboak-Armairu enpotratuak  
Santa Ana, 8  
r: 943 74 36 34

### Ulazla

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
w 943 74 05 47



## Proiektu eta erreformak

### Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)  
w 943 744 055/943 744 019  
Arragueta, 12 behea (Eibar)  
w 943 200 698



## Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

### Ongi

Olaso Poligonoa,  
15-68 pabilloia  
w 943 74 28 80

### Pagoaga

San Antolin, 13  
w 943 74 02 79

### Pagoerrotza

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
w 943 75 60 44  
659 33 43 23

### Tellabide

Azpilgoeta, 19 MENDARO  
l.; 943 75 50 62  
w 607 75 50 62

### Zaldua

Urasandi, 26  
12 943 74 05 30

### Zublzarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
ta 943 74 07 89  
w 650 58 61 44



## Igeltseritza

### Antonio Markez

Urasandi, 24  
g: 943 74 34 18

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
w 605 70 52 04



## Elektrizitatea

### Aramar

Morkaiko, 1  
e 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
t: 943 74 12 38

### Urzelai

Santa Ana, 12-14  
g.k 943 74 13 76



## Pinturak

### Biok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.  
w 943 74 15 52  
t: 606 43 11 19-20

### Ipintza

Foruen enparantza, 4  
w 943 74 04 40/607 74 04 40



## Isolamenduak

### Gla.s Controf S.L.

Olaso 27, 47. pabilloia  
e 943 74 30 94



## Indusketa lanak

### Lekunberri indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak  
Lekunberri baserria

w 943 74 20 98/629 42 56 32  
[koldolekunberri@hotmail.com](mailto:koldolekunberri@hotmail.com)  
[www.excavacioneslekunberri.com](http://www.excavacioneslekunberri.com)